

# ATAUNGO EUSKERA BARANDIARANEN BAITAN

Lantxo labur honetan Joxemiel Barandiaranek Ataungo euskararekiko izan zuen estimua azaltzen saiatuko naiz, bertako berezitasun batzuk azalduz; hau da, Ataungo euskarari eta, bide batez, Euskarari egin dion ekarpena aipatuz.

Euskaltzain izendatzeko, batik bat, herri-euskararen inguruan eginiko bilketa izan zen meriturik handiena. Jakina da Euskal herri osoan jasotako esaunda eta ipuinak tokian tokiko euskalkian transkribatzen zituela. Eta karguak bultzatuta burutu zuen *Hitz batzuek eta beren esan-nahiak, gehienak Ataunen erabiltzen ditugunak eta hiztegieta, batez ere Azkuenean, ageri ez direnak* (1) izeneko lana.

Horretarako, herriko berriemaileez baliatu zen; tartean bere ama Maria Antonia Aierbe Dorronsoro, hain zuzen, Peruenezar baserriaren ondoko Aldakotxo edo Markesane izeneko baserriko alaba. Euskal Herrian zehar euskalki guztietako esaunda edo kontu zaharrak jatorrizko euskaraz jaso eta argitaratu zituen; beste batzuen artean, lekuko gisa hara bakar batzuk: Ataun (G), Zeanuri (B), Zigoitia (A), Leitza (N), Sara (L), Urepele (BN) eta Altzai (Z).



*JM Barandiaranen jaiotetxea. Peruenezar. Ataun*

Baditu, ordea, hainbat arlo, bere lanetan txertatutik diren arren berezko balioa dutenak; hara, nola, toponimia:

- Esaundetako leku-izenak: Artiñe, Telletxealde, Urrutsua, Layoa, Lauztiazpi, Erroiondo, Jentilbaratza, Muskia, ...
- Adibidez, *Contribución al estudio de la casa rural y establecimientos humanos. Pueblo de Ataun*. 1924. izeneko ikerketan 70 leku-izen: Akotain, Izarre, Sabiaga, Arrate, Keiñuestrata, Olatza-aitze, Etzui, Artari, Markesane, ...
- Sara Iparraldeko herriaren izena ezarri zion Ataungo bere bizenari..
- 1916an Jentilbaratzako gazteluaz (bere lehendabiziko ikerketa) egindako lanetik hasita, etengabekoa da Euskal Herri osoko toponimiagintzari egin dion ekarpena.


- Horrezaz gain, Ataun bere jaioterria aztertzeko betarik ez zuenez, Joan Arin Dorronsoro laguna bultzatu zuen ikerketara. Honek 8.000 leku-izen jaso eta kokatzea lortu zuen.

Osagarritzat, aipa ditzagun bere egunerokoak (2), 1917an hasita idatzi zituenak, Ataungo euskaran idatziak hain zuzen. Beroriek bi ezaugarri dituzte: bata, bere buruari hika hitz egiten dio eta halaxe idazten du. Eta bestea, erabiltzen dituen aditzak dagoeneko galtzear daudenez, izugarrizko balioa dute euskararen ikerkuntzarako. Horretarako, 1981 eta 1982ko bakar batzuk hautatu ditugu lagintzat.

## 1981

### Ilbelta

21<sup>a</sup> : Gaur etorri **zaieatzak** (zaizkidak/zaizkit).



JMBarandiaranen egunerokoak. 1981.01.21

22<sup>na</sup> : Etorri **zataak/ zatâk** (zaidak/zait).

30<sup>a</sup> : Egin nai **zeetuk** (dizkik/ditu) / Etorri **zaiutzak** (zaizkiguk/zaizkigu)

### Otsaila

11<sup>a</sup>: egin **zeetuia** (egin dizkiate/dituzte).

14<sup>a</sup>: Emen izan **deat/deat** (diat).

### Epaila

9<sup>a</sup>. Arratsaldean adierazi **zeate** (zidatek).

13<sup>a</sup>. Berak ekarri **zeak** (zidak/dit)

19<sup>a</sup>. Auek egin **diitzeen** (dizkiaten/dizkidaten)

### Jorraila

... eraman **natxoia** (nautek/naute)

24<sup>a</sup>: Ba-**giñuztân** (giñuztean/ginen)

### Uztailla

31<sup>a</sup> eraman **gatxêtuk** (gaituk/gaitu)

### Urria

10<sup>a</sup>. oso ondo artu **gatxetuia** (gaituztek/gaituzte). Eskerrak eman **zeeat** (zieat /diet).


### Agorra

27<sup>a</sup>. eragozpen bat izan **diia** (dute)

1982

Garagarrilla

1<sup>a</sup>. **banatxebillek** (banabilek/banabil)



JMBarandiaranen egunerokoak. 1982.06.01

Abendua

31<sup>a</sup>. zorion-agur asko artu **zeetu**at dizkiat/dituzte).

Solaskideekiko euskaran, erregistro ezberdinak erabiltzen zituen. Neuk entzuten nizkionak hauexek dira: ezezagunei zuka, familiakoei hika (iloba Martin Auzmendi), herriko gizonezko oso ezagunei hika, iloba Pilarri hika (honek osabari berorika):

*Zein onan?  
Ekatzan jostorratza, neonek sartuko zonat arie ta!  
Ze esan diñ?  
Nun jarri den?  
Arratingoa etoi al den?  
Non itzenan?*

Beraz, euskarari Barandiaranek eginiko ekarriaren emaritxo bat besterik ez da; bada zer aztertua.

(1) *Piarres Lafitte'ri omenaldia* in *Iker*. Nº 2. Bilbo: Euskaltzaindia, 1983, 189-204 or.

(2) 1981 eta 1982ko egunerokoak edo Vademecumak.

**Jexux AIZPURUA BARANDIARAN**